



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### 2017KO ABENDUAREN 11KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2017.12.11.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

#### **Bertaratuak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

#### Zinegotziak:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

#### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

#### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

#### **AZTERGAIK:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Ana Isabel Tellechea Iraola andrea eta Javier Gago Balda jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-M<sup>a</sup> Rosario Agesta Larrechea andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-M<sup>a</sup> Luisa Almandoz Michelena andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Candido Apecechea Lucambio jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 6.-Amalia Tellechea Echeverria andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 7.-Simon Iturria Alzuri jaunaren lurren katastroko aldaketaren onespena.
- 8.-ADEMNA: diru laguntza eskaera.
- 9.-Angel Urtxegi Telletxea jauna: mailaz igotzeko eskaera.
- 10.-2018ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespena.
- 11.-2018ko tipoak eta zergak.
- 12.-Alkatearen ebazpenak.
- 13.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2017ko azaroaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-ANA ISABEL TELLECHEA IRAOLA ANDREA ETA JAVIER GAGO BALDA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Ana Isabel Tellechea Iraola andreak eta Javier Gago Balda jaunak aurkeztutako eskaera, Meaka alderdian dauden arkazien probetxamendua egiteko (entresaka, 5. poligonoko 350. lur zatian ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ana Isabel Tellechea Iraola andreari eta Javier Gago Balda jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileei jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordioa hau eskatzaileei jakinaraztea.

### **3.-M<sup>a</sup> ROSARIO AGESTA LARRECHEA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik M<sup>a</sup> Rosario Agesta Larrechea andreak aurkeztutako eskaera, Bidatxueta eta Azki alderdietan dauden pinuen probetxamendua egiteko (entresaka, 4. poligonoko 77. eta 201. lur zatietan eta matarrasa, 4. poligonoko 51. eta 76B. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M<sup>a</sup> Rosario Agesta Larrechea andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **4.-M<sup>a</sup> LUISA ALMANDOZ MICHELENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik M<sup>a</sup> Luisa Almandoz Michelena andreak aurkeztutako eskaera, Antronpa alderdian dauden zuhaitzen probetxamendua egiteko (matarrasa, 6. poligonoko 342. lur zatian).

Kontuan hartuz lur zatia herriko lurra dela katastroan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M<sup>a</sup> Luisa Almandoz Michelena andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko eta Mendi Zerbitzuak eginen duen balorazioaren %10a ordaintzeko baldintza pean.



## **ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

2) Eskatera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea 6 urteko epea ematen zaiola probetxamendua egiteko eta lur zatia garbia uzteko.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **5.-CANDIDO APECECHEA LUCAMBIO JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Candido Apecechea Lucambio jaunak aurkeztutako eskaera, Alkatxuri alderdian dauden zuhaitzak (gaztainak, hartiz amerikarrak, pagoa, gerezia eta pinua) probetxamendua egiteko (entresaka, 1. poligonoko 75. C eta D lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Candido Apecechea Lucambio jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskatera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **6.-AMALIA TELLECHEA ECHEVERRIA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

6.1.-Ikusirik Amalia Tellechea Echeverria andreak aurkeztutako eskaera, Goiko Borda alderdian dauden arkaziak eta pinuen probetxamendua egiteko (entresaka, 5. poligonoko 42. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Amalia Tellechea Echeverria andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskatera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

6.2.- Ikusirik Amalia Tellechea Echeverria andreak aurkeztutako eskaera, Goiko Borda alderdian gaztainak landatzeko ( 5. poligonoko 42. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Amalia Tellechea Echeverria andreari eskatutako landaketa egiteko baimena ematea, honako baldintzapean: landereek bidetik eta mugatik 3 metroko distantzia izatea.

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **7.-SIMON ITURRIA ALZURI JAUNAREN LURREN KATASTROKO ALDAKETAREN ONESPENA.**

Ikusirik Simon Iturria Alzuri jaunak aurkeztutako idatzia, bere izenean dauden 1. poligonoko 273., 274. eta 275. lur zatietan falta den lurra eman eta katastroan aldaketa egiteko eskatuz, 1990ko abuztuaren 31an eta 231/1990 Foru Dekretuaren bidez Arantzako Udala eta Simon Iturria Alzuri jaunaren artean onartutako irazlaien hitzarmenaren arabera.

Ikusirik Nafarroako Herri Lur Zerbitzuak prestatutako idatzia, onartuz falta dituela hainbat metro eta aipatutako lur zatien azalera aldatzeko aldeko txostena emanaz .

Ikusirik Nafarroako Herri Lur Zerbitzuak prestatutako planoak, bertan egindako neurketaren arabera.

Kontuan hartuz Simon Iturria Alzuri jaunak ados agertu dela aldaketa horrekin.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Simon Iturria Alzuri jaunaren eskaera onartzea, Nafarroako Herri Lur Zerbitzuak egindako txostena eta planoaren arabera.

2) Nafarroako Gobernuak Katastroko planoak aldatzeko eskatzea.

3) Simon Iturria Alzuri jaunari jakinaraztea bertako zuhaitzak (pinu insignis) herrikoak direla eta Udalak probextuko dituela.

4) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **8.-ADEMNA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik ADEMNA elkarteak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Nafarroako esklerosi anizkoitzaren eritasuna duten bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko .

Kontuan hartuz 2017ko aurrekontuan ez dagoela aurreikusi horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) ADEMNA elkarteari eskatutako diru laguntza ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

## **9.-ANGEL URTXEGI TELLETXEA JAUNA: MAILAZ IGOTZEKO ESKAERA.**

Ikusirik Angel Urtxegi Telletxea jaunak aurkeztutako eskaera, oraingo dagoen D mailatik C mailara igotzeko.

Ikusirik Idazkariak egindako txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Angel Urtxegi Telletxea jaunak egindako eskaera onartzea eta mailaz igotzeko prozedura hasteko agindua ematea.

2) Plantilla organikoa hasiera batez aldatzea helburu horrekin.

3) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **10.-2018KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.**

**10.1.-**2018ko aurrekontuaren egitasmoa eta exekuzio oinarriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

1) 2018ko aurrekontuaren eta exekuzio oinarrien espedientea hasiera batean onartzea.

2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.



## **ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

**10.2.-** Arantzako Udaleko 2018ko plantilla organikoa ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2018ko Arantzako Udaleko plantilla organikoa hasiera batean onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

### **11.-2018KO TIPOAK ETA ZERGAK.**

Aztertu ondoren indarrean dauden karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Orain arteko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak mantentzea eta ez igotzea, herriko lurrian irazlarien kanona izan ezik, kanona berdina kobratuz denei (20,00 euro) probexten duten azalera kontuan hartu gabe.
- 2) Katastroaren balorazio txostena onesten ez bada, katastroko tipoak berdina izanen dira.
- 3) Katastroaren balorazio txostena onetsia badago: kontribuzioaren tipoa 2017ko hiri ondasunetik kobratutako kopurua berdina izateko portzentaia kobratuko da.

### **12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 143. ebazpenetik 162. ebazpena arte.

### **13.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

### **14.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak aurkeztutako diru laguntza eskaera, 2018. urterako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari 100,00 euroko diru laguntza ematea eskatutako helburuentzat.

### **15.-RUTH VERTIZ ERASUN ANDREA: ALABA PELLETTIKIN SARTZEKO ESKAERA.**

Ikusirik Ruth Vertiz Erasun andreak aurkeztutako eskaera, 7 hilabeteko bere alaba Pellettikin onartzeko.

Kontuan hartuz zerbitzua bat eta hiru urte bitarteko haurrendako dela baino 2017-2018 ikasturtean bakarrik 4 haur daudela bertan.

Kontuan hartuz hezitzailea prest agertu dela zerbitzu hori emateko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Ruth Vertiz Erasun andreak aurkeztutako eskaera onartzea eta, ondorioz, bere alaba 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera Pellettikin hartzea.

2) Eskatzaileari jakinaraztea zerbitzuarengatik hilero 130,00 euro ordaindu beharko duela.

3) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

#### **16.- UDALEKO BILEREN EGUTEGIA.**

Udala eratzeko 2015eko ekainaren 13an egindako bileran erabaki zen ohizko bilkurak hilabetero egitea, hilabeteko lehenbiziko ostiraletan (arratsaldeko 19:00etan).

Alkateak proposatu du ohizko bilkurak egitea hilabeteko lehenbiziko astelehenetan, arratsaldeko 18:30ean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Onartzea alkatearen proposamena eta ohizko bilkurak hilabeteko lehenbiziko astelehenetan egitea, arratsaldeko 18:30ean.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Mentxu Peña Lizarazu and.

